

Hezkuntza demokratikoa nerabezaroan



- **Gurasoek jakin behar dute:**
 1. Nerabeek gurasoengandik askatzeko premia psikologikoa dutela.
 2. Denbora-tarte txikian aldaketa askori egin behar diotela aurre.
 3. Oso eragin handia duela guk esan eta azaltzen dieguna, euren buruaz duten irudiaren gainean.
 4. Autonomiaz landu behar dutela euren bizi-proiektua.
 5. Bizi dituzten esperientziez ikasten dutela.
 6. Gu eta eurak pertsona ezberdinak garela.

Bide demokratikoa: azaldu, jakinarazi, adostu, fidatu eta goraipatu

- Arauen zentzua **azaldu** (indukzioa). Zentzua ulertuz baino ez dituzte bereganatuko (adibidez: ez ezazu erre osasunerako txarra delako, eta ez guk esaten dizugulako).
- **Jakinarazi**: gurasoek ez dute pentsatu behar seme-alabek dena dakitela sexu-harremanei buruz, edo legezko eta legez kontrako drogen kontsumoari buruz, edo antzeko gai erabakigarriei buruz.
- **Adostu**: informazio egokia medio, ados daiteke nerabeek barneratu behar dituzten portaera-arauak zeintzuk izango diren.
- **Fidatu**: norbere burua kontrolatzeko gaitasunak dituztelako ustea helaraztea.
- Noizbehinka, bere izateko moduaren edo bere jokabidearen ezaugarriren bat **goraipatu**.



Bide demokratikoa: exijitu, eskuordetu, autonomia sustatu



- Ikasteko eginbeharrak betetzeko **exijitu**: dagokion lana dela eta familiari eta gizarteari egin behar dion ekarpena dela ulertaraztea.
- Etxeko edo familia-bizitzako erantzukizunen bat **bere esku utzi**: familia-komunitateari lagundu beharko diola ulertaraztea.
- Bere autonomia **sustatu**: nerabeari, gestio errazak edo etxeko konponketa egokiak egiteko eskatzea.
- Dagozkien konpromisoak bete behar izateari **tinko eustea**.

Bide demokratikoa: harremanak zaindu komunikazioa egon dadin

- Harremanak **zaindu**: balio eta arauak bakarrik harreman onetan oinarrituta helaraziko dira. Bakar-bakarrik zigorraren beldur direlako errespetatzen dituztelako, agintezko jokabideak: gerora begira ez dira egokiak.
- Egiten duena urrutitik **gainbegiratu**, ez dezala bere burua zelatatuta sentitu.
- **Ezagutarazi**: ikerketek erakusten duten bezala, gurasoek bereganatzen duten informazioarik fidagarriena da seme-alabek eurek konfiantzaz ematen dietena.



Bide demokratikoa: gatazka onartu eta hezteko erabili

- Ezinbestekoa da nolabaiteko gatazka-maila **onartzea**.
- Nerabearen kontrako jarrera, eraso pertsonal edo agintearen galera gisa **ez sentitzea**.
- Adibideak erabilita, bere iritzia ahalik eta begirune handienaz adierazten **irakastea**.
- Besten ikuspegi batetik ulertzen **irakastea**.
- Gatazkek konpontzeko irtenbideak **adostea**.
- **Malgua izatea**: egoera ezberdinen aurrean, akordio berriak adostea.



Bide demokratikoa: beste aholku batzuk



- Emoziozko xantaia, errudun sentimendua, mesprezua eta maitasunik eza galaraztea: ez dira batere eraginkorrak, eta nerabeari gurasoen kontra erabiltzeko bide ematen diote.
- Pribilegioak kenduta ez zigortzea: ez da ezer lortzen, ikasketetan emaitza txarrak izateagatik aste-saria kenduta edo irtetea galarazita.
- Indartu nahi den portaera lantzea, adibidez: ikasteko orduen plangintza egitea.
- Autonomia izateko erantzukizuna izan behar dela ulertaraztea (jokatzeiko baldintzak betetzekotan irteteko baimena izatea).
- Dimentsio bakarra galaraztea: nerabea ez da ikasle soila, ezta kirolari soila ere; pertsona izateagatik baloratu behar den gizakia da (berezko balorazioa).
- Susmo-adierazpen etengabeak galaraztea: ez dira oso eraginkorrak, are gehiago, debekatutakoaren arabera jokatzera eramaten dute nerabea.
- Hitz egitea eta, beti, modu irekian.



Bide demokratikoa: beste aholku batzuk (I)

- Emoziozko xantaia, errudun sentimendua, mesprezua, maitasunik eza **galaraztea**: ez dira batere eraginkorrak, eta nerabeari gurasoen kontra erabiltzeko bide ematen diote.

Pribilegioak kenduta **ez zigortzea**: ez da ezer lortzen, ikasketetan emaitza txarrak izateagatik aste-saria kenduta edo irtetea galarazita.

Indartu nahi den portaera **lantzea**, adibidez, ikasteko orduen plangintza egitea.



Bide demokratikoa: beste aholku batzuk (eta II)

- Autonomia izateko erantzukizuna izan behar dela **ulertaraztea** (jokatzeko baldintzak betetzekotan irteteko baimena izatea).
- Dimentsio bakarra **galaraztea**: nerabea ez da ikasle soila, ezta kirolari soila ere; pertsona izateagatik baloratu behar den gizakia da (berezko balorazioa).
- Susmo-adierazpen etengabeak **galaraztea**: ez dira oso eraginkorrak, are gehiago, debekatutakoaren arabera jokatzera eramaten dute nerabea.
- **Hitz egitea**, eta, beti, modu irekian.

